



***SOCIEDAD DEL BALNEARIO LA PERLA DEL  
OCÉANO, S.L.***

***2022KO ABENDUAREN 31KO URTEKO KONTU LABURTUAK,  
IKUSKAPEN TXOSTENAREKIN BATERA***

***CUENTAS ANUALES ABREVIADAS AL 31 DE DICIEMBRE  
DE 2022 JUNTO CON EL INFORME DE AUDITORÍA***



***SOCIEDAD DEL BALNEARIO LA PERLA  
DEL OCÉANO, S.L.***

***2022KO ABENDUAREN 31KO URTEKO  
KONTU LABURTUEN IKUSKAPEN TXOSTENA***

***INFORME DE AUDITORÍA DE LAS CUENTAS ANUALES  
ABREVIADAS AL 31 DE DICIEMBRE DE 2022***



AUDITORE INDEPENDENTE BATEK EGINDAKO  
URTEKO KONTU LABURTUEN IKUSKARITZA-  
TXOSTENA

---

SOCIEDAD DEL BALNEARIO LA PERLA DEL  
OCÉANO, S.L.aren Bazkide bakarrari:

**Iritzia**

SOCIEDAD DEL BALNEARIO LA PERLA DEL  
OCÉANO, S.L.ren, (Sozietatea), urteko kontu laburtuak  
ikuskatu ditugu. Urteko kontu laburtu hauek, 2022ko  
abenduaren 31ko balantzeak, eta aipatutako datan  
bukatutako ekitaldiari dagozkion galdu-irabazi kontuak  
eta memoriak (guztiak eredu laburtuan) osatzen dituzte.

Gure iritiz, erantsitako urteko kontu laburtuek, arlo  
esanguratsu guztietan, 2022ko abenduaren 31n  
Sozietatearen ondarearen eta egoera finantzarioaren irudi  
fidela adierazten dute, baita data horretan bukatu den  
ekitaldiari dagozkion emaitzena ere, aplikagarria zaion  
informazio finantzarioaren araudiaren arabera  
(memoriaren 2.a oharrean adierazten dena), bereziki,  
bertan agertzen diren kontabilitate-printzipioekin eta  
arauekin.

**Iritzia emateko oinarria**

Ikuskaritza lana, Espainian indarrean dagoen kontu-  
ikuskaritza arautzen duen arautegia jarraituz egin dugu.  
Gure erantzukizunak, arau horien arabera, *Urteko kontu  
laburtuen ikuskaritzaren inguruan, auditorearen  
erantzukizunak* atalean zehazten dira.

Sozietatearengandik independenteak gara, Espainiako  
urteko kontu laburtuen ikuskaritzan jarraitu beharreko  
etika eskakizunen arabera (independentzia eskakizuna  
barne), kontu-ikuskaritzak arautzen dituen araudian  
xedatutakoarekin bat. Zentzu horretan, ez dugu kontuen  
ikuskaritza ez den beste zerbitzurik eman, eta ez da gertatu

INFORME DE AUDITORÍA DE CUENTAS ANUALES  
ABREVIADAS EMITIDO POR UN AUDITOR  
INDEPENDIENTE

---

Al Socio único de SOCIEDAD DEL BALNEARIO LA  
PERLA DEL OCÉANO, S.L.:

**Opinión**

Hemos auditado las cuentas anuales abreviadas de  
SOCIEDAD DEL BALNEARIO LA PERLA DEL  
OCÉANO, S.L., (la Sociedad), que comprenden el balance  
a 31 de diciembre de 2022, la cuenta de pérdidas y  
ganancias y la memoria (todos ellos abreviados)  
correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha.

En nuestra opinión, las cuentas anuales abreviadas  
adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la  
imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de  
la Sociedad a 31 de diciembre de 2022, así como de sus  
resultados correspondientes al ejercicio terminado en dicha  
fecha, de conformidad con el marco normativo de  
información financiera que resulta de aplicación (que se  
identifica en la nota 2.a de la memoria) y, en particular, con  
los principios y criterios contables contenidos en el mismo.

**Fundamento de la opinión**

Hemos llevado a cabo nuestra auditoría de conformidad  
con la normativa reguladora de la actividad de auditoría de  
cuentas vigente en España. Nuestras responsabilidades de  
acuerdo con dichas normas se describen más adelante en la  
sección *Responsabilidades del auditor en relación con la  
auditoría de las cuentas anuales abreviadas* de nuestro  
informe.

Somos independientes de la Sociedad de conformidad con  
los requerimientos de ética, incluidos los de  
independencia, que son aplicables a nuestra auditoría de las  
cuentas anuales abreviadas en España según lo exigido por  
la normativa reguladora de la actividad de auditoría de  
cuentas. En este sentido, no hemos prestado servicios



aipatutako araudi-erregulatzailearen arabera ezinbestekoa den independentzia arriskuan jarri zezakeen inolako egoerarik.

Lortu dugun ikuskaritza-ebidentziarekin, iritzia emateko oinarri nahikoa eta egokia dugula uste dugu.

### **Ikuskaritzaren alderdirik garrantzitsuenak**

Ikuskaritzaren alderdirik garrantzitsuenak, gure iritzi profesionalaren arabera, egungo urteko kontu laburtuen ikuskaritzan hutsegite esanguratsuak egoteko arrisku esanguratsuenak bezala hartutakoak izan dira. Arrisku hauek, gure ikuskaritzaren testuinguruan eta urteko kontu laburtuen osotasunean hartu dira kontuan, baita horiei buruzko gure iritzian ere, eta ez dugu arrisku hauei buruzko iritzi bereizirik ematen.

Ikuskaritza-txostenean jakinarazi beharko liratekeen esanguratsutzat hartu behar diren arrisku gehiago ez daudela zehaztu dugu.

### **Urteko kontu laburtuen inguruan, administratzaileen erantzukizuna**

Administratzaileen erantzukizuna da erantsitako urteko kontu laburtuak egitea, Sozietatearen ondarearen, egoera finantzarioaren eta emaitzen irudi fidela adieraziz, sozietateari aplikatu behar zaion Espainian indarrean dagoen informazio finantzarioaren araudia jarraituz. Baita iruzurrengatik edo errakuntzengatik hutsegite esanguratsurik ez daukaten urteko kontu laburtuak prestatzeko beraien ustez egokiena den barne kontrola ere.

Urteko kontu laburtuak prestatzean, administratzaileen erantzukizuna da funtzionamenduan dagoen enpresa

distintos a los de la auditoría de cuentas ni han concurrido situaciones o circunstancias que, de acuerdo con lo establecido en la citada normativa reguladora, hayan afectado a la necesaria independencia de modo que se haya visto comprometida.

Consideramos que la evidencia de auditoría que hemos obtenido proporciona una base suficiente y adecuada para nuestra opinión.

### **Aspectos más relevantes de la auditoría**

Los aspectos más relevantes de la auditoría son aquellos que, según nuestro juicio profesional, han sido considerados como los riesgos de incorrección material más significativos en nuestra auditoría de las cuentas anuales abreviadas del periodo actual. Estos riesgos han sido tratados en el contexto de nuestra auditoría de las cuentas anuales abreviadas en su conjunto, y en la formación de nuestra opinión sobre ésta, y no expresamos una opinión por separado sobre esos riesgos.

Hemos determinado que no existen riesgos más significativos considerados en la auditoría que se deban comunicar en nuestro informe.

### **Responsabilidad de los administradores en relación con las cuentas anuales abreviadas**

Los administradores son responsables de formular las cuentas anuales abreviadas adjuntas, de forma que expresen la imagen fiel del patrimonio, de la situación financiera y de los resultados de la Sociedad, de conformidad con el marco normativo de información financiera aplicable a la entidad en España, y del control interno que consideren necesario para permitir la preparación de cuentas anuales abreviadas libres de incorrección material, debida a fraude o error.

En la preparación de las cuentas anuales abreviadas, los administradores son responsables de la valoración de la



bezala jarraitzeko Sozietateak duen gaitasuna balioztatzea. Horretarako, dagokionaren arabera, funtzionamenduan dagoen enpresarekin zerikusia duten gaiak adieraziko dituzte funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa erabiliz; salbuespena izango da administratzaileek sozietatea likidatzeko edo eragiketak amaitzeko asmoa dutenean, edo beste aukera errealistarik ez dagoenean.

#### **Urteko kontu laburtuen ikuskaritzaren inguruan, auditorearen erantzukizunak**

Gure helburuak hauek dira: urteko kontu laburtuek, osotasunean hartuz, iruzurrengatik edo errakuntzengatik hutsegite esanguratsurik ez duten arrazoizko segurtasuna lortzea eta, gure iritzia barneratzen duen ikuskaritza-txostena igortzea.

Arrazoizko segurtasuna lortzea segurtasun maila altua da, baina ez du bermatzen Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskaritza araudia jarraituz egindako ikuskaritzak existitu daitekeen hutsegite esanguratsu bat beti antzeman dezakeenik. Hutsegiteak iruzurrengatik edo errakuntzengatik sor daitezke, eta materialtzat hartuko dira, bai banaka bai batuta hartuta, urteko kontu laburtuetan oinarrituz erabiltzaileek hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan arrazoiki eragiten dutela aurreikusten bada.

Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskaritza arautegia jarraituz egindako ikuskaritza lan guztian, eszeptizismoz eta irizpen profesionala aplikatuz jardun dugu. Baita ere:

- Urteko kontu laburtuetan, iruzurrengatik edo errakuntzengatik, hutsegite esanguratsuak egoteko arriskuak identifikatu eta balioztatu egiten ditugu; arrisku horiei erantzuna emateko prozedurak diseinatzen eta aplikatzen ditugu; eta ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritzia emateko oinarria izateko. Iruzurreragatik gerta daitekeen

capacidad de la Sociedad para continuar como empresa en funcionamiento, revelando, según corresponda, las cuestiones relacionadas con empresa en funcionamiento y utilizando el principio contable de empresa en funcionamiento excepto si los administradores tienen intención de liquidar la sociedad o de cesar sus operaciones, o bien no exista otra alternativa realista.

#### **Responsabilidades del auditor en relación con la auditoría de las cuentas anuales abreviadas**

Nuestros objetivos son obtener una seguridad razonable de que las cuentas anuales abreviadas en su conjunto están libres de incorrección material, debida a fraude o error, y emitir un informe de auditoría que contiene nuestra opinión.

Seguridad razonable es un alto grado de seguridad, pero no garantiza que una auditoría realizada de conformidad con la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas vigente en España siempre detecte una incorrección material cuando existe. Las incorrecciones pueden deberse a fraude o error y se consideran materiales si, individualmente o de forma agregada, puede preverse razonablemente que influyan en las decisiones económicas que los usuarios toman basándose en las cuentas anuales abreviadas.

Como parte de una auditoría de conformidad con la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas en España, aplicamos nuestro juicio profesional y mantenemos una actitud de escepticismo profesional durante toda la auditoría. También:

- Identificamos y valoramos los riesgos de incorrección material en las cuentas anuales abreviadas, debida a fraude o error, diseñamos y aplicamos procedimientos de auditoría para responder a dichos riesgos y obtenemos evidencia de auditoría suficiente y adecuada para proporcionar una base para nuestra opinión. El riesgo de no detectar una incorrección



hutsegite esanguratsua ez antzemateko arriskua, errakuntzagatik eman daitekeen hutsegite esanguratsua ez antzematekoa baino altuagoa da, izan ere iruzurrak kolusioaren, faltutzearen, nahita egindako ez-egitearen, nahita egindako adierazpen okerren, edo barne-kontrolaren saihespenaren ondorioz izan daitezke.

- Ikuskaritzarako garrantzitsua den barne-kontrolaren ezagupena lortzen dugu, egoeraren arabera egokiak diren ikuskaritza-prozedurak diseinatzeko helburuarekin; eta ez, erakundearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko helburuarekin.
- Aplikatutako kontabilitate-politikak egokiak diren balioztatzen dugu; baita kontabilitate-estimazioen arrazoigarritasuna eta administratzaileek emandako informazioa ere.
- Administratzaileek funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa egoki erabili duten ondorioztatzen dugu; eta lortutako ikuskaritza ebidentzian oinarrituz, funtzionamenduan dagoen enpresa bezala jarraitzeko Sozietateak daukan gaitasuna zalantzan jar dezakeen gertaera edo baldintzekin zerikusia duen ziurgabetasun esanguratsurik dagoen edo ez ondorioztatzen dugu. Ziurgabetasun esanguratsua dagoela ondorioztatzen badugu, gure ikuskaritza-txostenean urteko kontu laburtuetan honi buruz ematen den informazioari arreta jarri behar diogu edo, emandako informazioa ez bada egokia, iritzi-aldatua eman behar dugu. Gure ondorioak, ikuskaritza-txosteneko datara arte lortutako ikuskaritza-ebidentzian oinarritzen dira. Hala ere, etorkizuneko gertaeren edo baldintzen ondorioz, Sozietateak funtzionamenduan dagoen enpresa izatez utz dezake.
- Urteko kontu laburtuen aurkezpen globala, egitura eta edukia balioztatzen dugu, emandako informazioa barne; baita urteko kontu laburtuek transakzioak eta

material debida a fraude es más elevado que en el caso de una incorrección material debida a error, ya que el fraude puede implicar colusión, falsificación, omisiones deliberadas, manifestaciones intencionadamente erróneas, o la elusión del control interno.

- Obtenemos conocimiento del control interno relevante para la auditoría con el fin de diseñar procedimientos de auditoría que sean adecuados en función de las circunstancias, y no con la finalidad de expresar una opinión sobre la eficacia del control interno de la entidad.
- Evaluamos si las políticas contables aplicadas son adecuadas y la razonabilidad de las estimaciones contables y la correspondiente información revelada por los administradores.
- Concluimos sobre si es adecuada la utilización, por los administradores, del principio contable de empresa en funcionamiento y, basándonos en la evidencia de auditoría obtenida, concluimos sobre si existe o no una incertidumbre material relacionada con hechos o con condiciones que pueden generar dudas significativas sobre la capacidad de la Sociedad para continuar como empresa en funcionamiento. Si concluimos que existe una incertidumbre material, se requiere que llamemos la atención en nuestro informe de auditoría sobre la correspondiente información revelada en las cuentas anuales abreviadas o, si dichas revelaciones no son adecuadas, que expresemos una opinión modificada. Nuestras conclusiones se basan en la evidencia de auditoría obtenida hasta la fecha de nuestro informe de auditoría. Sin embargo, los hechos o condiciones futuros pueden ser la causa de que la Sociedad deje de ser una empresa en funcionamiento.
- Evaluamos la presentación global, la estructura y el contenido de las cuentas anuales abreviadas, incluida la información revelada, y si las cuentas anuales abreviadas representan las transacciones y hechos



hauen inguruko gertaerak irudi fidela erakusteko moduan jasotzen dituzten ere.

Erakundeko administratzaileekin harremanetan egoten gara, besteak beste, planifikatutako ikuskaritza noiz egin eta zer irismen izango duen jakiteko, ikuskaritzan azaldutako kontu nagusiak aztertzeko, bai eta ikuskaritzan aurkitutako barne kontrolaren edozein gabezia esanguratsuren harira ere.

Erakundeko administratzaileei jakinarazi zaizkien arrisku esanguratsuen artean, aldi honetako urteko kontu laburtuen ikuskaritzan esanguratsuenak izan direnak zehazten ditugu, horietatik baitira garrantzitsuentzat jo ditugunak.

Arrisku horiek gure ikuskaritza-txostenean deskribatzen ditugu, salbu eta legezko edo arauzko xedapenek gai horiek plazaratzea debekatzen badute.

Donostian, 2023ko martxoaren 28an

subyacentes de un modo que logran expresar la imagen fiel.

Nos comunicamos con los administradores de la entidad en relación con, entre otras cuestiones, el alcance y el momento de realización de la auditoría planificados y los hallazgos significativos de la auditoría, así como cualquier deficiencia significativa del control interno que identificamos en el transcurso de la auditoría.

Entre los riesgos significativos que han sido objeto de comunicación a los administradores de la entidad, determinamos los que han sido de la mayor significatividad en la auditoría de las cuentas anuales abreviadas del periodo actual y que son, en consecuencia, los riesgos considerados más significativos.

Describimos esos riesgos en nuestro informe de auditoría salvo que las disposiciones legales o reglamentarias prohíban revelar públicamente la cuestión.

Donostia, a 28 de marzo de 2023

**Betean Auditoría, S.L.P.**

(ROACean S-1.354 zenbakiz inskribatutako sozietatea /  
Sociedad inscrita en el ROAC con el nº S-1.354)

José Ignacio Miguel Salvador  
(11.305 zenbakiarekin ROAC-ean inskribatuta /  
Inscrito en el ROAC con el nº 11.305)



***SOCIEDAD DEL BALNEARIO LA PERLA  
DEL OCÉANO, S.L.***

***2022KO ABENDUAREN 31KO URTEKO KONTU LABURTUAK  
CUENTAS ANUALES ABREVIADAS AL 31 DE DICIEMBRE DE  
2022***

**SOCIEDAD DEL BALNEARIO LA PERLA DEL OCÉANO, S.L.**

SOCIEDAD DEL BALNEARIO LA PERLA DEL OCEANO S.L.  
2022KO ABENDUAREN 31KO BALANTZE LABURTUA  
(EUROAK)

AKTIBOA	NOTAK	2022	2021
<b>A. AKTIBO EZ KORRONTEA</b>		<b>2.143.518</b>	<b>2.260.329</b>
III. Ondasun higiezinetako inbertsioak	5	2.143.518	2.260.329
<b>B. AKTIBO KORRONTEA</b>		<b>1.528.352</b>	<b>1.171.108</b>
III. Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak	6	227.857	248.079
1. Salmentengatik eta zerbitu emateengatik bezeroak		227.857	248.079
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak		1.300.495	923.029
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>		<b>3.671.870</b>	<b>3.431.437</b>
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	NOTAK	2022	2021
<b>A. ONDARE GARBIA</b>		<b>3.453.871</b>	<b>3.235.698</b>
<b>A.1 Funtz propioak</b>		<b>3.171.923</b>	<b>2.931.479</b>
I. Kapitala		1.806.640	1.806.640
1. Kapital eskrituratua	7	1.806.640	1.806.640
III. Erreserbak	7	1.124.853	1.047.713
IV. (Akzio eta ondare-partaidetza propioak)	7	(15)	(15)
V. Aurreko ekitaldietako emaitzak		-	(12.085)
VII. Ekitaldiko emaitza	3	240.445	89.226
<b>A. 3 Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legaluak</b>	<b>8</b>	<b>281.948</b>	<b>304.219</b>
<b>B. PASIBO EZ KORRONTEA</b>		<b>89.036</b>	<b>96.069</b>
IV. Zerga geroratuaren pasiboak	8	89.036	96.069
<b>C. PASIBO KORRONTEA</b>		<b>128.963</b>	<b>99.670</b>
V. Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak		128.963	99.670
1. Hornitzaileak	9	4.334	27.664
2. Bestelako hartzekodunak	9	26.272	26.621
5. Zerga korrientearen pasiboak		75.930	24.360
6. Administrazio publikoekiko beste zor batzuk		22.427	21.025
<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA</b>		<b>3.671.870</b>	<b>3.431.437</b>

Donostian, 2023ko martxoaren 27an

Memoria laburtu honetako 1etik 15era bitarteko oharrek 2022ko abenduaren 31n bukatutako urteko ekitaldiari dagozkion balantze laburtuaren parte dira.

# SOCIEDAD DEL BALNEARIO LA PERLA DEL OCEANO, S.L.

## SOCIEDAD DEL BALNEARIO LA PERLA DEL OCEANO S.L.

### 2022KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO EKITALDIARI DAGOKION GALDU-IRABAZIEN KONTU LABURTUA (EUROAK)

	NOTAK	2022	2021
4. Hornikuntzak		(54.772)	(50.163)
5. Ustiapeneko bestelako sarrerak	11.b)	654.640	469.358
7. Ustiapeneko bestelako gastuak	11.c)	(200.178)	(218.102)
8. Ibilgetuaren amortizazioa	5	(116.811)	(116.811)
9. Ibilgetu ez-finantzarioko diru-laguntzen eta bestelako en egozpena	8	29.304	29.304
<b>A) USTIAPENeko EMAITZA</b>		<b>312.183</b>	<b>113.586</b>
12. Sarrera finantzarioak	11.d)	4.192	-
<b>B) EMAITZA FINANTZARIOA</b>		<b>4.192</b>	<b>-</b>
<b>C) ZERGA AURREKO EMAITZA</b>		<b>316.375</b>	<b>113.586</b>
17. Mozkinen gaineko zerga		(75.930)	(24.360)
<b>D) EKITALDIKO EMAITZA</b>		<b>240.445</b>	<b>89.226</b>

Donostian, 2023ko martxoaren 27an

Memoria laburtu honetako 1etik 15era bitarteko oharak 2022ko abenduaren 31n bukatutako urteko ekitaldiari dagozkion galera eta irabazi kontu laburtuaren parte dira.

# BALNEARIO LA PERLA DEL OCÉANO, SM ELKARTEA

## BALNEARIO LA PERLA DEL OCÉANO SM ELKARTEA

### 2022KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIARI DAGOKION MEMORIA LABURTUA

#### (1) Elkartearen jarduera

Balneario La Perla del Océano, SM Elkarte 1926. urteko irailaren 25ean sortu zen, sozietate anonimo moduan, eta erantzukizun mugatuko sozietate egin zen 1992ko ekainaren 23an Akziodunek egindako Batzar Nagusi Unibertsalean hartutako erabakiaren bidez. Gipuzkoako merkataritza-erregistroan erregistratuta dago: 1.239 Liburukia, 136 Folia, 5.887 orria, 1993. urteko otsailaren 15ean.

Elkartearen helbide soziala honako hau da: Kontxa pasealekua, 8.

Elkartearen egitekoa da “La Perla del Océano” izeneko bainuetxearen eraikuntza berritzea eta ustiatzea eta Donostian eta beste herri batzuetan beste bainuetxe batzuk ere eraikitzea eta ustiatzea, bereziki, Estatuak “La Perla del Océano” elkarte berriari Gros auzoko zabalgunean emandako emakidari dagokiona. Halaber, Elkartearen helburua izango da Groseko eta Kontxako hondartzetan bainulariek erabil ditzaketen eguzki-oihalak, itzalkinak, hamakak, aulkiak eta beste tresna edo elementuak alokatzea.

Enpresaren egungo jarduera bat dator helburu sozialarekin.

Enpresak euroa erabiltzen du moneta funtzional gisa. Finantza-egoerak eurotan egiteko, Kontabilitateko Plan Orokorrean ezarritako irizpideak jarraitu dira, Erregistro eta Balorazio Arauak 4. atalean agertzen den moduan.

#### (2) Urteko Kontuak aurkezteko oinarriak

##### a) Irudi zehatza-

2022ko abenduaren 31ko kontabilitate-erregistroetan oinarrituta osatu ditu Administrazio Kontseiluak hemen atxikitako urteko kontu laburtuak. Honako arau hauetan jasotako kontabilitate-printzipioak eta balorazio-irizpideak jasotzen dira kontu horietan: Kontabilitate Plan Orokorra onartzen duen 1514/2007 Errege Dekretua eta dekretu horri 1159/2010 Errege Dekretuaren, 602/2016 Errege Dekretua eta 1/2021 Errege Dekretuaren bidez egindako aldaketak eta kontabilitate arloan indarrean dauden gainerako lege-xedapenak. Urteko kontu laburtuek Sozietatearen ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi fidela erakusten dute, eta diru-fluxuen egoera-orrian jasotako fluxuen egiazkotasuna bermatzen.

Elkarteak indarrean dagoen legediak ezarritako parametroak gainditzen ez ditenez, urteko kontuak eredu laburtuaren arabera aurkeztuko ditu. Memoria

## BALNEARIO LA PERLA DEL OCÉANO, SM ELKARTEA

honetan, aipatutako urteko kontuetan sartutako kontabilitateko egoera eta dokumentu guztiak horien eredu laburtuaren arabera egin dira.

Sozietateko Akziodunen Batzar Nagusiak 2022ko apirilaren 28an onartu zituen aurreko ekitaldiko urteko kontuak, Kapital Sozietateei buruzko Legean jasotako epearen barruan.

2022ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak Elkarteko Akziodunen Batzar Nagusiak oraindik onartzeko badaude ere, Elkarteko administratzaileek ez dute uste gehiegi aldatuko direnik onartu ondoren.

b) Balorazioaren alderdi kritikoak eta ziurgabetasunaren zenbatespena-

Funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioaren arabera egin ditu Sozietateak 2022ko ekitaldiko urteko kontuak, egungo egoera izan ditzakeen eraginak kontuan hartuta. Alde horretatik, jardueraren jarraipena ez dago arriskuan.

Ekitaldiaren amaieran, ez dago etorkizunari buruzko hipotesi giltzarririk ez eta ziurgabetasunaren zenbatespenari buruzko datu esanguratsurik, ez behintzat hurrengo ekitaldiko aktibo eta pasiboen balioan aldaketa esanguratsuak ekar ditzakeenik.

Kontabilitate-zenbatespenetan ez da izan aldaketa esanguratsurik, egungo ekitaldiari eragiten dionik edo etorkizuneko ekitaldiei eragin diezaiekeenik.

c) Informazioa konparatzea-

Urteko kontu laburtuetan, balantze laburtuko eta galera-irabazien kontu laburtuko partida bakoitzarekin, 2022ko ekitaldiko zenbakiez gain, aurreko ekitaldikoak ere agertzen dira, konparatzeko. Era berean, 2022ko ekitaldiari dagokion memoria laburtu honetan dagoen informazioarekin batera, 2021eko ekitaldiari dagokion informazioa aurkezten da, konparazioa egiteko.

d) Aldaketak kontabilitate-irizpideetan, akatsak eta kontabilitate-zenbatespenak

2022ko ekitaldian ez da aldaketa nabarmenik izan kontabilitate-irizpideetan, aurreko ekitaldian aplikatutako irizpideekin alderatuta.

Horrez gain, 2022ko ekitaldiko urteko kontuetan, ez dira jasotzen ekitaldian detektatutako akatsen ondorioz egindako doikuntzak.

e) Informazioaren gaineko erantzukizuna eta egindako zenbatespenak-

Sozietateko administratzaileek dute urteko kontu hauetan jasotako informazioaren gaineko erantzukizuna.

2022ko abenduaren 31n amaitutako urteko kontuetan, Elkarteko Administratzaileek egindako kalkuluak erabili dira tarteka, haietako aktibo, pasibo,

## BALNEARIO LA PERLA DEL OCÉANO, SM ELKARTEA

sarrera, gastu eta konpromiso batzuk baloratzearen. Funtsean, balioespenak honako hauen ingurukoak dira:

- Zenbait aktibo okerragotzearen bidez sortutako galerak.
- Aktibo materiala eta ukigarrien balio-bizitza.

Urteko kontuak egiterakoan zegoen onenaren arabera kalkulu horiek egin badira ere, baliteke etorkizunean gerta daitezkeen gertaeren bidez aldatu behar izatea (gorantz edo beherantz) hurrengo ekitaldietan. Hori modu prospektiboan egingo litzateke, kalkuluaren aldaketaren ondorioak ikusita etorkizuneko galeren eta irabazien kontuetan.

### f) Garrantzia erlatiboa

Memoria honetan finantza-egoerei buruzko partidei eta beste gaiari buruzko informazioa ematean, Sozietateak kontuan izan du 2022ko ekitaldiko urteko kontuekiko garrantzia erlatiboa, Kontabilitate Plan Orokorreko Esparru Kontzeptualarekin bat.

### g) Partiden taldekatzea eta partida batzuetan jasotako elementuak

Urteko kontuetan ez dago taldekatutako partidarik balantzean, galdu-irabazien kontuan, ondare garbiaren aldaketen egoera-orrian edo diru-fluxuen egoera-orrian.

Halaber, ez da aurkeztu balantzeko bi partidatan edo gehiagotan erregistratutako ondarezko elementurik.

## (3) Emaitzak aplikatzea

Hona hemen Administrazioaileek Akziodunen Batzar Nagusiari onartzeko proposatuko dioten 2022ko ekitaldiko emaitza banatzeko proposamena:

-Eurotan-

Kontzeptua	2022	2021
Ekitaldiko emaitza, erantsitako Galera eta. Irabazien Kontuaren arabera	240.445	89.226
Honela bana daiteke:		
Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak		
Legezko erreserba	24.044	8.923
Borondatezko erreserbak	216.401	80.303

## BALNEARIO LA PERLA DEL OCÉANO, SM ELKARTEA

### (4) Erregistro- eta balorazio-arauak

Elkartek, indarrean dagoen legediaren arabera, 2022ko abenduaren 31n urteko kontuak egiteko ondorengo erregistro- eta balorazio-arau nagusiak hartu ditu kontuan:

a) Ondasun higiezinetakoko inbertsioak-

“Higiezinetakoko inbertsioak” epigrafean, Elkartearen aktibo ez arruntak jasotzen dira; hots, errentak jasotzeko dituen higiezinak. Horiek erregistratzeko eta baloratzeko, ibilgetu materialarentzat aplikatzen diren irizpide berberak aplikatzen dira.

Ondasun higiezinetakoko inbertsioak eskuratze-kostuarekin baloratzen dira, pilatutako amortizazioaren garbia eta okerragotzeagatik izandako galerak kontuan hartuta, eta 11/1996 Foru Arauan ezarritakoaren arabera eguneratzen dira. Elementu bakoitza erosterakoan ordaindutako prezioaren gehigarri gisa, kostuan sartuko lirateke baita ere eraikuntza-denboraldian sortutako finantza-gastuak, erosketari edo aktiboaren egiteari zuzenean eransteak, betiere, erabiltze moduan egoteko urte bat baino gehiago behar dutenean. Ekitaldian zehar, ez da zenbatekorik aktibatu kontzeptu hori medio.

Elementu osoen ordezkapenak edo berritzeak, handitzeko, modernizatzeko edo hobetzeko kostuak, ondasunaren balio-bizitza gehitzen dutenak, produktibitatea edo gaitasun ekonomikoa higiezinetakoko inbertsioen zenbatekorik handiena moduan kontabilizatzen dira, ordezkaturako edo berritutako elementuen kontabilitatea kenduta. Mantentze, kontserbatze eta konpontze lanen aldizkako gastuak emaitzetan sartzen dira, sortzapen-printzipioari jarraiki, gertatutako ekitaldiko kostu moduan.

Amortizazioa kalkulatzeko, metodo lineala aplikatzen da aktiboen eskuratze-kostuaren gainean, eta hondar-balioa kentzen zaio. Aktibo horien amortizazio kontzeptuko urteko zuzkidurak kontrapartidarekin egiten dira galeren eta irabazien kontuan. Sozietateen gaineko Zergaren Legearen arabera kontuan hartutako eta aplikatutako portzentajeak balio-bizitzako hurrengo urteetatik ateratzen dira:

	Urteak
Eraikuntzak	25-50
Instalazioak	16

1996. urtea baino lehenagoko higiezinetakoko inbertsioen partidak 11/1996 Foru Arauan ezarritakoaren arabera amortizatzen dira.

Aktibo ez arruntera gehitutako elementuen amortizazioa erregistratutako da funtzionamenduan hasten diren anean.

## BALNEARIO LA PERLA DEL OCÉANO, SM ELKARTEA

Elkarteko Administrazioaileen arabera, aktiboen kontabilitate-balioak ez du gainditzen horietatik berreskura daitekeen balioa.

Aktiboa besterentzeagatik edo erretiratzeagatik ateratako ondasun edo galera kalkulatu da salmentaren ondasunaren eta kontabilitateko balioaren zenbatekoaren arteko alde gisa, eta galeren eta irabazien kontuan jasotzen da.

### b) Finantza-tresnak

Finantza-tresnen kapituluan, enpresa bateko finantza-aktiboa eta, aldi berean, beste enpresa bateko finantza-pasibo bat edo ondarezko tresna bat jasotzen duten kontratuak erregistratu ditu Sozietateak. Hortaz, honako finantza-tresna hauei aplikatzen zaie arau hau:

- i. Finantza-aktiboak:
  - Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk.
  - Merkataritza-eragiketek eragindako kredituak: askotariko bezeroak eta zordunak.
  - Beste finantza-aktibo batzuk: kreditu-erakundeetako gordailuak, langileei egindako aurrerakinak eta kredituak, eraturako fidantza eta gordailuak, kobratu beharreko dibidenduak eta norbere ondare-tresnen gainean egin beharreko ordainketak.
- ii. Finantza-pasiboak:
  - Merkataritza-eragiketek eragindako zorrak: askotariko hornitzaileak eta hartzekodunak.
  - Beste finantza-pasibo batzuk: hirugarrenetikiko zorrak –adibidez, kreditu-erakundeak ez diren pertsona edo enpresengandik jasotako mailegu eta finantza-kredituak, aktibo ez-korronteak erostean sortutakoak barne–, jasotako fidantza eta gordailuak eta hirugarrenek partaidetzen gain eskatutako ordainketak.
- iii. Ondare propioko tresnak: funts propioetan jasotzen diren finantza-tresnak; besteak beste, jaulkitako akzio arruntak edo kapital sozialaren partaidetzak.

### **Finantza-aktiboak:**

#### **Sailkapena eta balorazioa**

Sozietatearen finantza-aktiboak kategoriatu hauek dira:

Kostu amortizatuko finantza-aktiboak: finantza-aktibo bat kategoriatu horretan jasotzen da –baita merkatu antolatutako batean negoziatzeko onartuta dagoenean ere–, baldin eta enpresak inbertsioa mantentzen badu, kontratua betetzeak eragindako diru-fluxuak jasotzeko helburuarekin, eta finantza-aktiboaren kontratu-baldintzek diru-fluxuak eragiten badituzte, zehaztutako datetan, soilik printzipalarekiko kobrantzak eta ordaintzeke dagoen printzipalarekiko interesak

## BALNEARIO LA PERLA DEL OCÉANO, SM ELKARTEA

direnean. Soilik printzipalarekiko kobrantzak eta ordaintzeko dagoen printzipalarekiko interesak diren kontratuzko diru-fluxuak mailegu arrunt baten izaera duen hitzarmen bati lotuta daude, hargatik eragotzi gabe eragiketa zero interes-tasan edo merkatuko interes-tasaren azpitik adosteko aukera. Oro har, kategoria horretan jasotzen dira merkataritza-eragiketek eragindako kredituak (enpresak kobrantza atzeratu bidez egindako eragiketengatik egindako ondasun-salmenta eta zerbitzu-prestazioetan sortutako finantza-aktiboak) eta merkataritzakoak ez diren eragiketek eragindako kredituak, zeintzuk, ondare-tresnak edo eratorriak ez izanik, ez baitute merkataritzako jatorririk eta, zeintzuen bidez, zehaztuta dauden edo zehazgarriak diren zenbatekoak kobratzen baitira, enpresak emandako mailegu edo kredituen ondorioz. Hortaz, kategoria horretan egongo lirateke kobratu beharreko maileguak eta kontuak, zorraren balio adierazgarriak –muga-egun zehatza dutenak–, zehaztatuta dagoen edo zehazgarria den zenbatekoa duten kobrantzak (merkatu aktibo batean negoziatzen direnak eta Sozietateak muga-egunera arte mantendu nahi eta ahal dituenak).

- Hasierako balorazioa: Lehenik eta behin, arrazoizko balioaren arabera baloratuko dira, zuzenean egozgarriak diren transakzio-kostuak gehituta. Hala eta guztiz ere, urte betetik beherako epemuga duten eta kontratuzko interes-tasa espliziturik ez duten merkataritza-eragiketak eta, halaber, langileen kredituak, kobratu beharreko dibidenduak eta ondare-tresnen gainean eskatutako ordainketak –zenbatekoa epe laburrean jasotzea espero denean– horien balio nominalaren arabera baloratu ahal izango dira, baldin eta diru-fluxuak ez eguneratzeak ondorio nabarmenik ez badu.

- Ondorengo balorazioa: kostu amortizatuaren arabera egiten da, eta sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, interes-tasa eraginkorraren metodoa aplikatuz.

Hala eta guztiz ere, urte betetik beherako epemuga duten eta, aurreko atalaren arabera, hasieran balio nominalaren arabera baloratzen diren kredituen kasuan, zenbateko horren arabera baloratuko dira ondoren ere, baldin eta ez badira narriatu.

Finantza-aktibo baten kontratuzko diru-fluxuak igorlearen finantza-zailtasunen ondorioz aldatzen direnean, enpresak aztertuko du ea egokia den galera bat kontabilizatzea balio-narriaduragatik.

- Narriadura: Narriadurak erregistratzeko, kobratu beharreko kontuetatik berreskuratu beharreko zenbatekoaren eta erregistroaren arabera dagoen kontabilitate-balioaren arteko aldea hartzen du kontuan Sozietateak.

Ekitaldiaren amaieran –gutxienez–, beharrezkoak diren balorazio-zuzenketak egin beharko dira, baldin eta objektiboki esan badaiteke kategoria horretan jasotako finantza-aktibo bat edo antzeko arrisku-ezaugarriak dituzten finantza-aktiboen talde bat narriatu egin dela hasierako balorazioaren ondorioz izandako gertakari batengatik edo batzuegatik, eta, horren eraginez, murriztu edo

## BALNEARIO LA PERLA DEL OCÉANO, SM ELKARTEA

atzeratu egin badira etorkizunerako zenbatetsitako diru-fluxuak, zordunaren kaudimengabeziaren eraginez.

Finantza-aktibo horiek narriatzeagatik sortutako galera kalkulatzeko, etorkizuneko diru-fluxuen kontabilitate-balioaren eta egungo balioaren arteko aldea kalkulaten da (berme erreal edo pertsonalak egikaritzean ustez sortuko diren fluxuak barne, hasierako balorazioaren unean kalkulaturako interes-tasa eraginkorra kenduta).

Narriadurak eragindako balio-zuzenketak eta lehengoratzek –galera horren zenbatekoa murriztu egiten denean ondorengo gertakari batengatik– gastu edo sarrera gisa aitortzen dira, hurrenez hurren, galdu-irabazien kontuan. Lehengoratzetan aitortutako kontabilitate-balioa izango litzateke narriadura lehengoratzeko muga, baldin eta balioaren narriadura erregistratu ez bada.

### **Finantza-aktiboen birsailkapena**

Enpresak diru-fluxuak sortzeko helburuarekin bere finantza-aktiboak kudeatzeko duen modua aldatzean, eragindako aktibo guztiak birsailkatu beharko ditu, arau honetan aurretiaz adierazitako irizpideen arabera. Kategoriatuak birsailkatzea ez da hartzen balantzeko baja gisa, baizik eta balorazio-irizpidearen aldaketa gisa.

Birsailkapen hauek egin daitezke:

- Kostu amortizatuko finantza-aktiboak galdu-irabazien kontuan aldaketak eragiten dituzten arrazoizko balioen finantza-aktiboetan birsailkatzea, eta alderantziz.
- Kostu amortizatuko finantza-aktiboak ondare garbian aldaketak eragiten dituzten arrazoizko balioen finantza-aktiboetan birsailkatzea, eta alderantziz.
- Galdu-irabazien kontuan aldaketak eragiten dituzten arrazoizko balioen finantza-aktiboak ondare garbian aldaketak eragiten dituzten arrazoizko balioen finantza-aktiboen kategoriarat birsailkatzea, eta alderantziz.
- Kostuaren arabera baloratutako ondare-tresnen inbertsioak galdu-irabazien kontuan aldaketak eragiten dituzten arrazoizko balioen finantza-aktiboen kategorian birsailkatzea, eta alderantziz.

### **Finantza-aktiboetatik jasotako interes eta dibidenduak**

Erosketaren ondoren sortutako finantza-aktiboen interes eta dibidenduak galdu-irabazien kontuko sarrera gisa aitortzen dira. Kostu amortizatuaren arabera baloratutako finantza-aktiboen interesak interes-tasa eraginkorraren metodoarekin aitortzen dira, eta ondare-tresnetan egindako

## BALNEARIO LA PERLA DEL OCÉANO, SM ELKARTEA

inbertsioetatik datozen dibidenduen sarrerak, berriz, Sozietateak horiek jasotzeko eskubidea sortzean aitortzen dira.

Finantza-aktiboen hasierako balorazioan, modu independentean erregistratzen dira, kontuan izanik muga-eguna, une horretan sortu diren eta epea gainditua ez duten interes esplizituen zenbatekoa eta erosketaren unean organo eskudunak hitzartutako dibidenduen zenbatekoa.

Halaber, banatutako dibidenduak erosketa-dataren aurretik sortutako emaitzetatik badatoz –zalantzarik gabe– edo erosketaz geroztik partaidetzapeko enpresak sortutako irabaziak baino zenbateko handiagoak banatu badira, ez dira sarrera gisa aitortzen, eta inbertsioaren kontabilitate-balioa murrizten dute.

Partaidetzapeko enpresak etekinak sortu dituen ebazteko, erosketaren dataz geroztik banakako galdu-irabazien kontuan kontabilizatutako etekinak bakarrik hartzen dira kontuan, baldin eta, zalantzarik gabe, etekin horien kargurako banaketa inbertsioaren berreskurapen gisa hartu behar ez bada, dibidendua jasotzen duen erakundearen ikuspegitik.

### **Finantza-aktiboen bajak:**

Sozietateak bajan ematen ditu finantza-aktiboak, dagokion finantza-aktiboaren diru-fluxuen gaineko eskubideak iraungi edo lagatzen direnean, eta horien jabetzari atxikitako arrisku eta etekinak substantzialki besterentzean. Kobratu beharreko kontuen kasuan, kaudimengabezia eta berandutze arriskua besterendu bada gertatzen da hori, oro har.

Finantza-aktibo bat bajan ematean sortutako galera edo irabazia zehazteko, kontuan hartzen da transakzio-kostu egozgarriengatik jasotako kontraprestazio garbiaren eta aktiboaren kontabilitate-balioaren arteko diferentzia, eta horri gehitzen zaio ondare garbian zuzenean aitortutako beste edozein zenbateko metatu. Aktibo hori kontuan izango da baja gauzatu den ekitaldiaren emaitzan.

Aldiz, Sozietateak ez du bajan ematen finantza-aktiborik, eta finantza-pasibo bat aitortzen du jasotako kontraprestazioaren pareko zenbatekoagatik, jabetzari atxikitako arrisku eta etekinak substantzialki atxikitzen dituzten finantza-aktiboen lagapenetan.

### **Eskudirua eta beste bitarteko likido baliokide batzuk.**

Egoera-balantzearen epigrafe honetan erregistratzen dira kutxako eta banketxeko eskudirua, ageriko gordailuak eta hiru hilabetetik beherako epe-muga duten likidezia handiko epe laburreko inbertsioak, kutxan azkar egin daitezkeenak eta balio-aldaketako arriskurik ez dutenak.

**Finantza-pasiboak:**

**Sailkapena eta balorazioa**

Balorazioaren ikuspegitik, kategoria hauetako batean sailkatzen dira finantza-pasiboak:

Kostu amortizatuko finantza-pasiboak: Kategoria horren barruan sailkatzen dira finantza-pasibo guztiak, galdu-irabazien kontuan aldaketak eragiten dituzten arrazoizko balioaren arabera baloratu behar direnean salbu. Oro har, kategoria horren barruan daude merkataritza-eragiketek eragindako zorrak eta merkataritza arlokoak ez diren eragiketek eragindako zorrak.

Mailegu arrunt baten ezaugarriak dituzten partaidetzako maileguak ere kategoria horretan sartzen dira, hargatik eragotzi gabe eragiketa zero interes-tasan edo merkatuko interes-tasaren azpitik adosteko aukera.

- **Hasierako balorazioa:** Hasieran, arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira. Kontrakoa adierazten duen ebidentziarik ez badago, transakzioaren prezioa izango da balio hori, hau da, jasotako kontraprestazioaren arrazoizko balioa, zuzenean egozgarri zaizkion transakzio-kostuen arabera doituta. Hala eta guztiz ere, urte betetik beherako epe-muga duten merkataritza-eragiketek eragindako eta kontratuzko interes-tasarik ez duten zorrak eta hirugarrenen partaidetzen gainean eskatzen dituzten eta epe laburrean egin beharreko ordainketak horien balio nominalaren arabera balora daitezke, baldin eta diru-fluxuak ez eguneratzearen ondorioa ez bada esanguratsua.

- **Ondorengo balorazioa:** kostu amortizatuaren arabera.
- **Sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira,** interes-tasa eraginkorraren metodoa aplikatuz. Hala eta guztiz ere, urte betetik beherako epe-muga duten eta, aurreko atalean adierazitakoaren arabera, hasieran balio nominalaren arabera baloratzen diren zorrak zenbateko horren arabera baloratuko dira aurrerantzean ere.

**Finantza-pasiboen bajak:**

Enpresak bajan emango du finantza-pasibo bat edo haren zati bat, dagokion obligazioa iraungitzean, hau da, obligazioa bete, bertan behera geratu edo iraungi denean.

**Entregatu eta jasotako fidantzak**

Betebehar jakin batzuk bermatzeko eraturako mailegu edo fidantzak efektiboki ordaindutako zenbatekoaren arabera baloratuko dira, baldin eta zenbateko hori dagokion arrazoizko balioaren antzekoa bada.

Errentamendu operatiboengatik edo zerbitzuen prestazioagatik entregatu edo jasotako fidantzen kasuan, arrazoizko balioaren eta ordaindutako zenbatekoaren arteko aldea errentamendu edo zerbitzu-prestazioaren aurretiazko

## BALNEARIO LA PERLA DEL OCÉANO, SM ELKARTEA

ordainketa edo kobrantza gisa hartzen da, zeina galdu-irabazien kontuari egozten baitzaio errentamenduak irauten duen epean edo zerbitzua eskaintzen den epean, salmenta eta zerbitzu-prestazioengatik lortutako sarrerei buruzko arauaren arabera.

Fidantzen arrazoizko balioa zenbatesteko orduan, gainerako epe gisa hartzen da zenbatekoa itzuli ezin den gutxieneko kontratuzko epea, itzulketaren portaera estatistikoa kontuan izan gabe.

Fidantza epe laburrekoa denean, ez da beharrezkoa diru-fluxuak deskontatzea, baldin eta horien ondorioa ez bada esanguratsua.

### Arrazoizko balioa

Arrazoizko balio esaten zaio transakzio bat egiteko interesa duten eta behar bezala informatuta dauden alderdien artean aktibo bat trukatzeko edo pasibo bat likidatzeko ordaindutako zenbatekoari.

Oro har, finantza-tresnak arrazoizko balioaren arabera baloratzeko orduan, Sozietateak merkatuko balio fidagarri bat hartzen du erreferentzia gisa, eta, hala, merkatu aktibo batean kotizatutako prezioa da arrazoizko balio horren erreferentzia onena. Merkatu aktiborik ez duten tresnen kasuan, balorazio-eredu eta -teknikak aplikatuz lortzen da arrazoizko balioa.

Merkataritza-eragiketetan sortutako kreditu eta zorren kontabilitate-balioa haien arrazoizko balioetik hurbil dagoela ulertzen da.

c) Akzio propioak-

Elkartek bereak ditu 50 partaidetza, 15,03 euroko eskuratze-kostukoak.

d) Errentamendu operatiboak-

Errentamendu operatiboaren eragiketetan, errentatzailearenak dira errentan hartutako ondasunen jabetza, eta, beraz, ondasunaren gaineko arrisku eta abantaila guztiak.

2022ko abenduaren 31n, Elkarteak errentamendu-kontratuak ditu soilik errentatzaile moduan.

Errentamendutik eratorritako sarrerak linealki kargatzen dira galeren eta irabazien kontuan, kontratuaren balio-bizitzaren arabera.

e) Saldoak sailkatzea arrunten eta ez-arrunten arabera-

Erantsitako egoera-balantzean, honela sailkatzen dira saldoak: ez-arruntak eta arruntak. Arruntetan sartzen dira ustiatzeko ohiko zikloaren barnean Elkarteak saltzea, kontsumitzea, ordaintzea edo egitea espero dituen saldoak. Sailkapen horri ez dagozkion gainerakoak, aldiz, ez-arruntak dira.

## BALNEARIO LA PERLA DEL OCÉANO, SM ELKARTEA

### h) Mozkinen gaineko zerga-

2022ko ekitaldirako Sozietateen gaineko zerga Sozietateen gaineko Zergaren inguruko urriaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren arabera ordaindu da.

Ekitaldi bakoitzeko Sozietateen gaineko zergaren gastua kalkulatzeko, aitzat hartzen da zergen aurreko emaitza ekonomikoa, gehitua edo gutxitua, egokitzen den moduan, zerga-emaitzarekiko alde iraunkorrekin, zerga-emaitza aipatu zergaren zerga-oinarritzat hartuta.

Inbertsioengatik izaten den kenkariari dagokion zerga-onurak murrizten du ekitaldi bakoitzeko Sozietateen gaineko Zergaren zenbatekoa.

### g) Diru-sarrerak eta gastuak-

#### **Alderdi komunak**

Enpresak bere jardueraren garapen arruntetik sortutako sarrerak aitortzen ditu, bezeroekin konprometitutako ondasun edo zerbitzuen kontrola besterentzen denean. Une horretan, sarrera baloratuko du enpresak, ondasun edo zerbitzu horien truke espero duen kontraprestazioa islatzen duen zenbatekoa kontuan hartuta.

Ez da aitortzen sarrerarik elementu homogeneousen edo amaitutako produktuen trukeetan, ez eta bi enpresen artean bakoitzak bere bezeroei produktua entregatzeko aurrera eramandako jarduera komertziala eraginkorragoa izateko egindako salgai-trukeetan .

#### **Aitorpena**

Enpresak kontratu batetik eratorritako sarrerak aitortzen ditu bezeroari konprometitutako ondasun edo zerbitzuen gaineko kontrola –alegia, bete beharreko obligazioak– besterentzen zaionean (edo zaion neurrian).

Ondasun edo zerbitzu (aktibo) baten kontrola aipatzean, ondare-elementu horren erabilerari buruz erabaki oro hartzeko eta gainerako etekin guztiak substantzialki lortzeko gaitasunari egiten zaio erreferentzia. Eta kontrol gisa ulertzen da, halaber, beste erakunde batzuk aktiboaren erabilerari buruz erabaki eta etekinak lortzea eragozteko gaitasuna.

Identifikatutako betebeharrak bakoitzeko (ondasunak entregatzea edo zerbitzuen prestazioa), kontratuaren hasieran, enpresak zehazten du bere gain hartutako konpromisoa denboran zehar ala une jakin batean beteko du.

Denboran zehar betetzen diren konpromisoetatik eratorritako sarrerak (oro har, zerbitzu-prestazioak edo ondasunen salmenta) aitortzeko, kontratuzko obligazioa guztiz betetzeko egindako aurrerapausoak hartzen dira kontuan, beti ere, enpresak informazio fidagarria badu aurrerapauso horiek neurtzeko.

## BALNEARIO LA PERLA DEL OCÉANO, SM ELKARTEA

Hartutako konpromisoa betetzen den neurrian, e berrikusi -eta, beharrezkoa bada, aldatu- egiten ditu aitortu beharreko sarreraren zenbatespenak. Berrikuspen horiek egiteko beharrak ez du esan nahi eragiketa horren emaitza fidagarritasunez zenbatetsi ezingo denik.

Data jakin batean enpresa ez bada gai obligazio baten betetze-maila arrazoizko moduan neurtzeko (adibidez, kontratu baten hasierako etapetan), konpromiso hori betetzeko egindako kostuak berreskuratzea espero arren, data horretara arte izandako kostuen zenbateko balioaren arabera bakarrik aitortzen dira sarrerak eta dagokien kontraprestazioa.

Une jakin batean betetzen diren kontratuzko obligazioen kasuan, data horretan aitortzen dira kontratua betetzetik eratorritako sarrerak. Inguruabar hori betetzen ez den bitartean, produktua (ondasunak edo zerbitzuak) ekoizteko edo fabrikatzeko gastuak izakin gisa kontabilizatzen dira.

Aurrez salmenta edo zerbitzu-prestaziotatik sarrera gisa aitortutako kreditu-eskubideen kobrantzari buruz zalantzak daudenean, narriadurak eragindako galera balio-zuzenketatik gastu gisa erregistratuko da, eta ez sarrera txikiago gisa.

Alde horretatik, bainuetxeko eraikina ustiatzeagatik lortutako sarreraren kasuan, errentariei lokalak dagozkien kontratuetan zehazturiko prezioan eskura jartzeko obligazioa bakarrik identifikatu da, eta, beraz, eskaintako zerbitzua denboran zehar banatzen da.

### **Balorazioa**

Ondasunen salmentatik eta zerbitzuen prestaziotik lortutako sarrera arruntak diruzko zenbatekoaren arabera edo, hala dagokionean, kontrapartidaren -jasotakoa edo jasotzea espero dena- arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira, zeina, kontrako ebidentziarik ezean, bezeroari besterendu beharreko aktiboetarako adosturiko prezioa baita, honako hauek kenduta: enpresak egindako edozein deskonturen zenbatekoa, prezioaren beherapena edo antzekoak, eta kredituen nominalari atxikitako interesak. Hala eta guztiz ere, urte betetik beherako mugaeguna duten eta kontratuzko interes-tasarik ez duten kreditu komertzialei atxikitako interesak jaso ahal izango dira, baldin eta diru-fluxuak ez eguneratzearen ondorioa ez bada esanguratsua.

Ez dira sarrera gisa hartzen ondasunak entregatzeko eta zerbitzuak emateko eragiketak kargatzen dituzten eta enpresak hirugarrenei jasanarazi behar dizkien zergak (adibidez, balio erantsiaren gaineko zerga eta zerga bereziak), ez eta hirugarrenen kontura jasotako kopuruak ere.

Sarreraren balorazioa egitean, kontraprestazio aldakorraren zenbatespenik onena hartzen du kontuan enpresak, baldin eta ez bada espero

## BALNEARIO LA PERLA DEL OCÉANO, SM ELKARTEA

aitortutako sarreraren zenbatekoa modu esanguratsuan lehengoratuko denik, aurrerago, kontraprestazio horri lotutako zalantza ebazten denean.

### h) Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak-

Ez itzulgarriak direnak ondare garbira zuzenean egotzitako sarrera moduan erregistratzen dira, zerga-efektua kenduta emandako zenbatekoarekin. Eman izanaren jakinarazpena jaso eta hasierako erregistroa egiten da, emateko banako ebazpenetan ezarritako baldintzak betetzearen gainean ez dagoela zentzuzko zalantzarik ikusten den unean. (8. Oharra).

Hasierako errekonozimenduan, Elkarteak, batetik, aktibo gisa jasotako ondasunak edo zerbitzuak erregistratzen ditu, eta, bestetik, ondare garbian dagokien igoera. Erregistratzen diren egunetik aurrera, kapitalaren diru-laguntzak emaitzetara egozten dira, horiekin finantzaturiko aktiboek denboraldian izandako balio-galeraren proportzioan, balioa jaitsi dakiekeen aktiboen kasuan izan ezik, orduan besterentzea edo inbentarioan baja emandako ekitaldiko emaitzari egotziko baitzaizkio.

Itzulgarriak pasibo moduan erregistratzen dira, harik eta ez itzulgarri izan arte.

### i) Taldeko enpresak-

Urteko kontuak aurkezte aldera, beste enpresa edo erakunde bat taldekoa dela esango da biek kontrol-harreman zuzena edo zeharkakoa baldin badute, Merkataritza Kodeko 42. artikuluan aurreikusitakoaren antzera elkarte-taldeentzat edo enpresak pertsona fisiko batek edo gehiagok kontrolatzen dituztenean, elkarrekin lan eginez edo zuzendaritza bakarra izanaz estatutuaren araberako akordio edo klausulen bidez.

Taldeko enpresa gisa hartzen da Donostiako Udala (7. Oharra).

### j) Ingurumenean eragina duten enpresa-jarduerak-

Ibilgetuko inbertsioztat hartzen dira Elkarteak jarduera behar bezala egiteak ingurumenean izan ditzakeen inpaktuak kentzeko, mugatzeko edo kontrolatzeko sistemak, ekipoak edo instalazioak erosteko kostuak. Ingurumenarekin lotutako gainerako gastuak, hots, ibilgetuaren elementuen erosketa-gastuekin zerikusirik ez dutenak, ekitaldiko gastu bezala hartzen dira.

Ingurumenean sor daitezkeen kontingentziei dagokienez, uste da sinatutako aseguru-polizek nahikoa babesten dituztela.

## BALNEARIO LA PERLA DEL OCEANO, SM ELKARTEA

### (5) Ondasun higiezineta inbertsioak

Hona hemen 2022ko eta 2021eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldietan zehar epigrafe honetako kontu ezberdinetan jasotako mugimenduak:

- Eurotan -

Mugimenduak	Lursailak eta eraikuntzak	Instalazio teknikoak eta beste ibilgetu material batzuk	Guztira
A) 2021eko ekitaldiko hasierako saldoa	5.044.987	890.806	5.935.793
B) 2021eko ekitaldiko amaierako saldoa	5.044.987	890.806	5.935.793
C) 2022ko ekitaldiko hasierako saldoa	5.044.987	890.806	5.935.793
D) 2022ko ekitaldiko amaierako saldoa	5.044.987	890.806	5.935.793
E) 2021eko ekitaldiko hasierako saldoan pilatutako amortizazioa	2.667.847	890.806	3.558.653
Ekitaldiko zuzkidura	116.811	-	116.811
F) 2021eko ekitaldiko amaierako saldoan pilatutako amortizazioa	2.784.658	890.806	3.675.464
G) 2022ko ekitaldiko hasierako saldoan pilatutako amortizazioa	2.784.658	890.806	3.675.464
Ekitaldiko zuzkidura	116.811	-	116.811
H) 2022ko ekitaldiko amaierako saldoan pilatutako amortizazioa	2.901.469	890.806	3.792.275
<b>2022ko ekitaldiaren amaierako garbia</b>	<b>2.143.518</b>	<b>-</b>	<b>2.143.518</b>

### (6) Finantza-aktiboak

#### a) Finantza-aktiboen sailkapena kategorien arabera-

Hona hemen finantza-aktiboen sailkapena kategorien eta moten arabera 2022ko eta 2021eko abenduaren 31n -taldeko, taldeaniztuneko eta elkartutako enpresen ondarean egindako inbertsioak salbu, eta eskudiru eta bestelako aktibo likido baliokideak kontuan izan gabe-, eta arrazoizko balioaren eta kontabilitate-balioaren arteko alderaketa:

Euroak-

Kostu amortizatuko aktiboak	2022.12.31		2021.12.31	
	Ez korrontea	Korrontea	Ez korrontea	Korrontea
Askotariko Zordunak	-	227.857	-	248.079
<b>Guztira</b>	<b>-</b>	<b>227.857</b>	<b>-</b>	<b>248.079</b>

Salmenten eta zerbitzu-prestazioen bezero-kontuan, Sozietateak egindako eta hainbat zerbitzu-prestaziotatik kobratu beharreko zenbatekoak jasotzen dira.

## BALNEARIO LA PERLA DEL OCEANO, SM ELKARTEA

b) Galera eta irabazi garbiak finantza-aktiboen kategorien arabera-

2022 eta 2021 ekitaldietan ez da gertatu aktibo finantzarioen kategorietatik eratorritako galera edo irabazi garbi esanguratsurik, ezta interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuz kalkulaturako diru-sarrera finantzario esanguratsurik ere.

2022ko eta 2021eko ekitaldietan aktibo finantzarioengatik izandako galera eta irabazi garbien zenbatekoa ez da esanguratsua.

### (7) Taldearen funtsak

a) Kapital soziala-

2022ko abenduaren 31n, kapital soziala 6.011.993 partaidetzakoa da, eta guztiz harpidetuta eta ordainduta dago. Akziodunak honela banatzen dira:

	Partaidetza-kop.	Partaidetzaren %
Donostiako Udala	6.011.943	%99,99
Autozorroa	50	%0,01
<b>Guztira</b>	<b>6.011.993</b>	<b>%100,00</b>

b) Erreserbak-

Egoera-balantzeetako Ondare garbiko "Taldearen funtsak" epigrafeko kontuan sartuta aurkitzen dira honako saldo ezberdin hauek (2022ko eta 2021eko abenduaren 31n):

-Eurotan-

Kontzeptua	2022/12/31	2021/12/31
Errebalorizazio-erreserba	338.776	338.776
Legezko erreserba	104.321	95.398
Akzio propioen erreserba	15	15
Beste erreserba batzuk	681.741	613.524
<b>Guztira</b>	<b>1.124.853</b>	<b>1.047.713</b>

c) Errebalorizazio-erreserba-

Erreserba horiek ibilgetu materialaren balioa eguneratzeko egindako eragiketen ondorio dira (higiezinetako inbertsioak indarrean dagoen kontabilitateko plan orokorrean ezarritako irizpideen arabera), arautzen zituen araudiari jarraiki eginda.

\*11/1996 Foru Araudiaren eguneratzea

## BALNEARIO LA PERLA DEL OCÉANO, SM ELKARTEA

Eguneratze-eragiketak Ogasun Ikuskaritzak isilbidean onartutzat ematen dira 2001eko abenduaren 31tik aurrera.

Saldoa kontabilitate-emaiza negatiboak kentzera, kapital soziala gehitzera edo bana ezin daitezkeen erreserbetarako erabili ahal izango da.

### d) Legezko erreserba-

Sozietate Anonimoen Legearen Testu Bateginari jarraiki, ekitaldiko mozkinaren %10a legezko erreserbarako gorde behar da, erreserba hori kapital sozialaren gutxienez %20a izatera iritsi arte.

Legezko erreserba erabili ahal izango da kapitala gehitzeko dagoeneko gehitutako kapitalaren %10 gainditzen duen saldoaren zatian.

Aurrean aipatutako helbururako izan ezik, eta kapital sozialaren %20a gainditzen ez duen bitartean, erreserba hori soilik erabiliko da galerak ordaintzeko, betiere, horretarako behar den adinako beste erreserbarik ez dagoenean.

### (8) Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak

Balantzeko "Ondare Garbia" kapituluko epigrafe honetan ondorengo mugimenduak erregistratu dira 2022ko eta 2021eko abenduaren 31n:

-Eurotan-		
Mugimenduak	Kapital diru-laguntzak	Zerga-efektua
2021eko ekitaldiko hasierako saldoa	326.490	103.102
Erretiroak	(22.271)	(7.033)
2021eko ekitaldiko amaierako saldoa	304.219	96.069
2022ko ekitaldiko hasierako saldoa	304.219	96.0269
Erretiroak	(22.271)	(7.033)
2022ko ekitaldiko amaierako saldoa	281.948	89.036

Azken saldoek osatzen dute emandako diru-laguntzen zenbatekoa, ekitaldiko emaitzetara ordaintzeko dagoena (4.j Oharra). Saldo horren zerga-efektua balantzeen "Pasiboak atzeratutako zergaren arabera" epigrafean kontabilizatuta aurkitzen da.

(9) **Finantza-pasiboak**

a) Finantza-aktiboen sailkapena kategorien arabera-

Hona hemen finantza-pasiboen sailkapena, kategoria eta moten arabera, abenduaren 31n:

Euroak-

Kostu amortizatuko pasiboak	2022.12.31		2021.12.31	
	Ez korrontea	Korrontea	Ez korrontea	Korrontea
Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk	-	30.606	-	54.285
<b>Guztira</b>	-	<b>30.606</b>	-	<b>54.285</b>

b) Galera eta irabazi garbiak, pasibo finantzarioen kategorien arabera-

2022ko eta 2021eko ekitaldietan ez da gertatu finantza-pasiboen kategorietatik eratorritako galera edo irabazi garbien zenbateko esanguratsurik, ez eta interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuz kalkulaturako finantza-gasturik ere.

(10) **Egoera fiskala**

Sozietateen gaineko zerga kalkulatu da emaitza ekonomikoaren edo kontabilitateko emaitzaren arabera, eta emaitza hori orokorrean onartutako kontabilitate-printzipioak aplikatuta lortzen da; gainera, ez dauka nahitaez emaitza fiskalarekin bat etorri beharrik. Emaitza fiskala izango da zergaren zerga-oinarria.

2022ko ekitaldiko kontabilitate-emaitza Sozietateen gaineko Zergaren zerga-oinarriarekin egokitzen da.

Indarrean dauden legezko xedapenen arabera, zergen likidazioak ezin dira behin betikotzat hartu harik eta zerga-agintariek ikuskatu arte edo preskripzio-epaia amaitu arte. Elkarteak azken lau ekitaldiak irekita ditu agintari fiskalek ikuska ditzaten jarduera dela-eta ordaindu beharreko zerga guztiak.

Elkarteko Administrazioailean ustez, ez dago orokorrean urteko kontuetan ondorio esanguratsurik sor dezakeen kontingentziarik, ikuskatzeko irekitako ekitaldiak berrikusi eta gero gerta daitezkeenik.

**(11) Diru-sarrerak eta gastuak**

a) Hornidurak-

2022ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko galera eta irabazien kontuko epigrafe honetan jasotako zenbateko osoa beste enpresa batzuek egindako lanei dagokie.

b) Ustiapeneko beste diru-sarrera batzuk-

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiei dagokien galeren eta irabazien kontuen epigrafe honetan kontzeptu hauek jasotzen dira:

-Eurotan-		
Kontzeptua	Zenbatekoa 2022/12/31	Zenbatekoa 2021/12/31
Eraikuntzen errentamendu bidezko diru-sarrerak	608.518	469.358
2020ko okupazio-kanonen itzulketa	46.122	-
<b>Guztira</b>	<b>654.640</b>	<b>469.358</b>

2022ko ekitaldian, Gipuzkoako Kosten Zerbitzu Probintzialak ebatzi du 46.122 euro itzultzea 2020ko ekitaldiko 1. eta 2. seihilekoen okupazio-kanonetik, uztailaren 21eko 692/2020 Errege Dekretuaren arabera, COVID-19ak eragindako larrialdiari aurre egiteko osasun-agintariek hartutako salbuespenezko neurrien barruan.

2022ko abenduaren 31n, Elkarteak errentariekin kontratatuta ditu errentamenduko gutxieneko ondorengo kuotak, indarrean dauden egungo kontratuen arabera, kontuan izan gabe gastu arrunten ondorioa, KPI bidezko etorkizuneko igoerak eta kontratu bidez hitzartutako errenten etorkizuneko eguneratzeak:

-Eurotan-	
Errentamendu operatiboan gutxieneko kuotak	Zenbatekoa
2023an	566.306
2024 eta 2027 artean	1.783.978
2028tik aurrera	7.135.910
<b>Guztira</b>	<b>9.486.194</b>

Aurreko koadroan sartutako errentamendu-kontratuen gehigarri gisa, badira beste bi kontratu mugagabe, eta Elkarteak horien alokairu bidez guztira 5.990 euro jasotzen ditu hilean.

## BALNEARIO LA PERLA DEL OCÉANO, SM ELKARTEA

### c) Ustiapeneko beste gastu batzuk-

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiei dagozkien galera eta irabazien kontuaren epigrafearen xehetasuna ondorengo da:

-Eurotan-

Kontzeptua	Zenbatekoa 2022/12/31	Zenbatekoa 2021/12/31
Kanpoko zerbitzuak	97.211	104.446
Zergak	102.967	113.656
<b>Guztira</b>	<b>200.178</b>	<b>218.102</b>

Kontu-ikuskariak eskaintako enpresa-zerbitzuengatik 2022 eta 2021eko ekitaldietan sortutako ordainsarien zenbatekoa 2.500 eurokoa izan da bi ekitaldietan.

### d) Diru-sarrera finantzarioak-

2020ko 1. eta 2. seihilekoko okupazio kanonen itzulketa partzialaren ondorioz, 4.192 euroko berandutze interesak sortu ziren.

## (12) Administrazio-kontseiluari buruzko informazioa

Sozietateko Administrazio Kontseiluko kide izateagatik ez da inolako ordainsaririk jasotzen; beraz, kontzeptu horren izenean ez da inolako gasturik egin. Bestalde, Sozietateko Administrazio Kontseiluko kideei ez zaie inolako aurrerakinik, krediturik edo abantailarik eman.

2022ko ekitaldian zehar, Administrazio Kontseiluko kideek ez dute egin Sozietatearekin edo Taldeko Sozietateekin trafiko arruntekoak ez diren eragiketarik edo merkatuko baldintza ezberdinetako eragiketarik.

Administratzaileek ez dute jakinarazi inolako gatazka egoera zuzenik edo zeharkakorik dagoenik Sozietatearekin, Kapital-sozietateen Legearen 229.3 artikulua ezartzen duen bezala.

Sozietatearen Zuzendaritza Gorena Administrazio-organoari dagokio.

## (13) Ingurumenari buruzko informazioa

Oro har, Elkartearen jardueren bitartez ez da ingurumenean inpaktu negatiborik sortzen; ondorioz, izan daitezkeen efektu horiek arintzeko helburua duten kostu edo inbertsio esanguratsurik ez da egin.

## BALNEARIO LA PERLA DEL OCÉANO, SM ELKARTEA

### (14) Berotegi-efektuko gasak botatzeko eskubideei buruzko informazioa

Elkarteak ez du berotegi-efektuko gasak botatzeko eskubiderik.

### (15) Hornitzaileei egindako ordainketa-gerorapenei buruzko informazioa

Hona hemen eragiketa komertzialetan hornitzaileei egindako ordainketa-gerorapenen inguruko informazioa:

Hornitzaileei ordaintzeko batz besteko aldia	2021	2022
	Egunak	Egunak
	26	24


## BALNEARIO LA PERLA DEL OCÉANO, SM ELKARTEA

21 orrialdeko (orrialde hau barne) Memoria hau Administrazio Kontseiluak egin du 2023ko martxoaren 27ko bileran.


### Administrazio Kontseilua:




Eneko Goia Laso  
Lehendakaria



Nekane Mendarte Azkue andrea  
Kidea




Marisol Garmendia Beloqui andrea  
Kidea



Roque Alday Del Valle de Lersundi jauna  
Kidea



Cristina Lagé Manich andrea  
Kidea




Jon Markel Ormazabal Gaztañaga jauna  
Kidea



Marta Huarte Paño andrea  
Kidea



Ricardo Burutaran Ferré jauna  
Kidea



Mikel Lezama Zubeldia jauna  
Kidea

**AITORPEN NEGATIBOA INGURUMEN-  
INFORMAZIOAREN INGURUAN URTEKO KONTUETAN**

**SOZIEATEAREN IDENTIFIKAZIOA: SOCIEDAD DEL BALNEARIO LA  
PERLA DEL OCEANO, S.L. IFZ: B20003398**

Behean sinatzen dutenek, aipatu Sozietateko Administratzaile gisa, adierazten dute Sozietatearen urteko kontuen kontabilitatean ez dagoela memoria sartu beharreko partidarik, Kontabilitateko Plan Orokorreko hirugarren zatiko adierazpenen arabera (azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretua).


SOCIEDAD DEL BALNEARIO LA PERLA DEL OCÉANO, S.L.

2023ko martxoaren 27an

Administrazio Kontseilua:



Eneko Goia Laso  
Lehendakaria



Nekane Mendarte Azkue andrea  
Kidea




Marisol Garmendia Beloqui andrea  
Kidea



Roque Alday Del Valle de Lersundi jauna  
Kidea



Cristina Lagé Manich andrea  
Kidea



Jon Markel Ormazabal Gaztañaga jauna  
Kidea



Marta Huarte Paño andrea  
Kidea



Ricardo Burutaran Ferré jauna  
Kidea



Mikel Lezama Zubeldia jauna  
Kidea